HONDARRIBIKO UDALA

# BANDOA / BANDO

Joan den ostiralean, 2020ko urriaren 23an, emandako azken bandotik berrikuntza garrantzitsuak gertatu dira COVID-19 gaixotasunaren aurkako borrokaren esparruan. Ildo horretan, eta osasun-egoeraren larritasunak gora egin duela ikusita, axola handiko arauak eman dira, bai Estatuko Gobernuaren aldetik, bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik.

Desde el último Bando dictado el pasado viernes, día 23 de octubre de 2.020, se han producido importantes novedades en el marco de la lucha contra la enfermedad COVID-19. En este sentido, y ante el aumento de la gravedad de la situación sanitaria, se han dictado unas Normas de gran calado, tanto por el Gobierno del Estado, como por el Gobierno Vasco.

Alde batetik, igande honetan, hilak 25, Estatuko Gobernuak urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua eman du, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedatzea geldiarazteko alarma-egoera deklaratzen duena.

Así, por una parte, este domingo, día 25, el Gobierno del Estado ha dictado el Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara el estado de alarma para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

Eta, beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua eman du, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedatzea geldiarazteko, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan prebentzio-neurri espezifikoak ezartzen dituena.

Y por otra parte, el Gobierno Vasco ha dictado el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

Arau hauen edukiaren axola dela eta, beharrezkotzat jotzen dut gure Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko eta herritar guztiek nahitaez bete beharreko zehaztapen hauek nabarmentzea:

Dada la trascendencia del contenido de estas Normas, considero necesario resaltar las siguientes determinaciones de aplicación en nuestra Comunidad Autónoma, y de obligado cumplimiento para toda la ciudadanía:

1. Mugatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean sartzea eta irtetea, aipatutako 36/2020 Dekretuan jasotako inguruabar eta jarduera jakin batzuk gertatzen direla justifikatu ezean.
2. Gainera, bizilekua duten udalerri bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera ere mugatuta geratzen da, baina muga hori ere salbuetsi egiten da, 36/2020 Dekretuan xedatutako inguruabar eta jarduera jakin batzuen justifikazioari dagokionez.
3. Pertsonen zirkulazioa mugatu egiten da

1. Queda limitada la entrada y salida en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, salvo justificación de la concurrencia de unas específicas circunstancias y actividades, recogidas en el citado Decreto 36/2020.
2. Además, también queda limitada la entrada y salida de personas de cada término municipal en que tengan fijada su residencia, aunque también se excepciona tal limitación en atención a la justificación de determinadas circunstancias y actividades, dispuestas en el reiterado Decreto 36/2020.
3. Se limita la circulación de personas en

Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 📠 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.eus © www.hondarribia.eus

HONDARRIBIKO UDALA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, 23:00etatik 06:00etara, salbu eta ordu-tarte horretan 36/2020 Dekretuan zehaztutako jardueraren bat justifikatuta egiten ari badira.

todo el Territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi entre las 23:00 horas y las 06:00 horas, a no ser que en dicha franja horaria se esté desarrollando justificadamente alguna de las actividades detalladas en el Decreto 36/2020.

4. Pertsona-taldeen elkartzea sei pertsonatara mugatzen da, espazio publiko zein pribatuetan, irekiak zein itxiak izan, bizikideak ez badira. Sei pertsonako gehieneko muga hori, taldearen osaeraren guztizko kopuru gisa, taldekatzea bizikideak direnak bizikide ez direnekin batera gertatzen den kasuetan ere aplikatuko da.

4. La permanencia de grupos de personas se limita a seis personas, tanto en espacios públicos como privados, y tanto abiertos como cerrados, salvo que se trate de convivientes. Esta limitación máxima de seis personas, como número total de composición del grupo, también se aplicará al caso en que la agrupación se produzca entre personas convivientes con no convivientes.

5. Prebentzio-arau gisa, honako hauek errepikatzen dira: une eta leku guztietan maskarak erabiltzeko betebeharra; pertsonen arteko gutxienez 1,5 metroko osasun-segurtasuneko distantziari eustea; eta tabakoa erretzea debekatzea, eta inhalatzeko edozein gailu erabiltzea, bide publikoan edo aire zabaleko guneetan, pertsonen arteko gutxienez 2 metroko distantzia errespetatu ezin denean.

5. Como Normas de prevención, se reitera: la obligación del uso de mascarillas en todo momento y lugar; el mantenimiento de la distancia de seguridad sanitaria de, por lo menos, 1,5 metros entre personas; y la prohibición de fumar, y del uso de cualquier dispositivo de inhalación de tabaco, en la vía pública o en espacios al aire libre cuando no se pueda respetar una distancia mínima interpersonal de, al menos, 2 metros.

6. Neurri espezifiko jakin batzuk ezartzen dira. Neurri horiek hartu, artatu eta bete egin beharko dira ekonomia-, hezkuntza-, kultura-, erlijio-, kirol- eta beste jarduera batzuen garapenean. Neurri horien deskribapena 36/2020 Dekretuan zehazten da.

6. Se establecen determinadas medidas específicas, que deberán ser adoptadas, atendidas y cumplidas en el desarrollo de distintas actividades económicas, educativas, culturales, religiosas, deportivas, etc., cuya descripción figura detallada en el Decreto 36/2020.

Aurreko zerrenda hartutako neurrien adibide bat besterik ez da, herritar guztien eguneroko bizitzaren garapenean duten proiekzioarekin bat datorrena, eta, jarduera jakin batzuen funtzionamenduari aplikatu beharreko neurri partikularrekin batera, gure eguneroko bizitzaren garapenean eragin garrantzitsua dutenak alderdi pertsonal eta kolektibo askotan.

La anterior relación es solo un ejemplo de las medidas adoptadas, que se corresponde con su proyección sobre el desarrollo de la vida cotidiana de toda la ciudadanía, y que, unidas a las particulares de aplicación al funcionamiento de unas actividades concretas, constituyen una importante afección del desarrollo normal de nuestras vidas en muchos de sus aspectos personales y colectivos.

Argi dago neurri horiek aurtengo martxotik ekainera

Es evidente que tales medidas nos recuerdan a

HONDARRIBIKO UDALA

bitarteko hilabeteak gogorarazten dizkigutela. Eta horiek hartzea beharrezkoa eta ulergarria da; izan ere, COVID-19 gaixotasuna kutsatze-datu kezkagarrietara itzuli baita, eta osasun- eta laguntza-zerbitzuen garapen normalean eragiten hasi dira. Ezin dugu onartu kutsatze-datu horiek okerrera egiten jarraitzea; izan ere, etxeko beste konfinamendu batera eramango gintuzkete, eta horrek ondorio oso kaltegarriak izango lituzke gizarte osoan.

los meses pasados entre marzo y junio del presente año. Y su adopción resulta necesaria y comprensible, porque la enfermedad COVID-19 ha vuelto a unos preocupantes datos de contagio, que empiezan a producir situaciones de alteración del normal desarrollo de los servicios sanitarios y asistenciales. No podemos permitirnos que tales datos de contagio sigan empeorando, dado que nos llevarían a la tesitura de vernos abocados a un nuevo confinamiento domiciliario de nefastas consecuencias para toda la sociedad.

Garaiz gabiltza osasun-egoera ez larriagotzeko, eta gure jokabidea jokabide arduratsu, zibiko eta solidario bihurtu behar dugu. Gizarteak, kolektibo gisa, ezin du deus lortu, pertsona guzti-guztien norbanako jarrera indibidualek helburu berean bat egiten ez badute.

Estamos a tiempo de evitar el agravamiento de la situación sanitaria, acomodando nuestro respectivo comportamiento a conductas responsables, cívicas y solidarias. La sociedad como colectivo nada puede conseguir si no se unen en un mismo objetivo las actitudes individuales de todas y cada una de las personas.

Egia da, ukaezina da denbora asko daramagula gure bizitzaren garapenean, irismen handiagoko edo ttikiagoko hainbat osasun-neurriren mende egoteak mugatuta. Eta orain muga horrekin jarraitzen dugu, eta are gogorragoa da muga. Hala ere, osasun-agintariek ez dute arbitrarioki jarduten, ezta diskrezionalki ere. COVID-19ren pandemiaren okertzeari aurrea hartzen saiatu beharraren ondorio dira haien erabakiak. Eta gure esku dago erabaki horiek onartzea eta geure egitea, kontzientziatuz ez dagoela, gaur egun, osasun-egoera leheneratzeko beste biderik, emandako arauak bete eta jarraitzea baino.

Es cierto, es innegable que llevamos ya mucho tiempo con el desarrollo de nuestras vidas limitado por el sometimiento a la adopción de distintas medidas sanitarias de mayor o menor alcance. Y ahora continuamos con tal limitación, incluso, con más dureza. Sin embargo, las Autoridades Sanitarias no actúan arbitrariamente, ni siquiera discrecionalmente. Sus decisiones obedecen a la necesidad de intentar adelantarse al empeoramiento de la pandemia del COVID-19. Y en nuestras manos está el acatar y asumir como propias esas decisiones, concienciándonos de que no hay, hoy por hoy, otro camino para revertir la situación sanitaria que el de seguir y cumplir las Normas dictadas.

Herritar guztien erantzukizun indibiduala eta kolektiboa eskatzen dut Bando honen xede diren arauak bete daitezen. Deialdi hori honela ulertu behar da: alde batetik, orain arte osasun-agintariek ezarritako betebehar eta gomendioak aintzat hartu dituztenei eskerrak emateko, eta jarrera laguntzaile horretan jarrai dezaten animatzeko; eta, bestetik, modu setati, gizalegegabe eta ez-solidarioan edozein osasun-neurriri jaramonik ez egiten jarraitzen dutenei beren jokabidea zuzentzeko eta osasun-xedapenak betetzeko beharraz

Hago un llamamiento a la responsabilidad individual y colectiva de toda la ciudadanía, para que se cumplan las Normas objeto de este Bando. Este llamamiento debe entenderse: por una parte, como agradecimiento hacia quienes hasta el momento han seguido las obligaciones y recomendaciones dispuestas por las Autoridades Sanitarias, y de ánimo para que sigan en esa colaboradora actitud; y por otra parte, como tajante requerimiento a quienes de forma

HONDARRIBIKO UDALA

HONDARRIBIKO UDALA

jabetzeko.

obstinada, incívica e insolidaria, persisten en desatender a cualquier tipo de medida sanitaria, para que corrijan su conducta, y asuman la conciencia de la necesidad de cumplir las disposiciones sanitarias que se dictan

Hondarribian, 2020ko urriaren 27an

En Hondarribia, a 27 de octubre de 2020

**ALKATEA**

**Txomin Sagarzazu Ancisar**

HONDARRIBIKO UDALA